La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá poner a disposición de las administraciones o instituciones públicas de la CAPV que así lo soliciten, la relación de personas integrantes de la bolsa de trabajo de oficiales.

Edonola ere, eskaera horiei benetan erantzun ahal izateko, beharrezkoa izango da lan poltsetan laneratzeko prest egoeran dauden pertsonak izatea eta betiere kontuan hartuko da zer langile behar dauzkan Aldundiak berak.

15. Gorabeherak.

Epaimahai Kalifikatzaileak badu ahalmenik sor litezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa prozesu hau behar bezala burutu dadin oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztian beharrezko erabakiak hartzeko.

Probak egitean epaimahaiak hautaketa prozeduratik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzeko duen edozein izangai, jokatze horrek ariketa normal garatzea eragozten badu edo, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera, lehia desleiala sortzen badu; jokoera hori jasota lagako da, dagokien bilkurako aktan.

Era berean, ez da onartuko hautaketa prozesuko ariketan zehar dispositibo edo bitarteko teknologikorik edukitzea edo erabiltzea, tresna horiek lehen aipatutako printzipioak urratzeko erabil daitezkeenean.

Izangai batek agindu horiek urratzen baditu, une horretan bertan geratuko da kasuan kasuko ariketatik zein hautaketa prozesutik kanpo, eta, horrenbestez, ez da inola ere prozesu horretatik ateratzen den lan poltsan sartuko.

16. Aurkaratzea.

Deialdia, oinarriak eta deialditik nahiz Epaimahaiaren jokatze erator litezkeen egintza administratibo guztiak, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako eran eta epeetan inpugnatu ahal izango dira.

GAI-ZERRENDA

Berriarazko araudia:

1. gaia. 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
2. gaia. Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI). 2015eko urtarrilaren 23ko testu finkatua.
3. gaia. Larrialdiei aurre egiteko Euskal sistemaren taktika operatiboak.
<https://www.euskadi.eus/larrialdi-euskal-sistema-taktika-operatiboak/web01-a2larri/eu/>
4. gaia. 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko. 21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez bigarren aldiz baita larrialdi egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen Dekretua.
5. gaia. 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen kontrako babes instalazioen erregelamendua onartzen duena.
6. gaia. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena. Oinarriko dokumentua, Segurtasuna suteen kasuan (DB-SI). Dokumentu osoa, eranskirik gabe (SI1-SI2-SI3-SI4-SI5-SI6).
7. gaia. 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, Establezimendu industrietako suteen aurkako segurtasunari buruzko araudia onartzen duena.

En todo caso, la respuesta efectiva a dichas peticiones estará supeditada al personal disponible en las bolsas y a las necesidades de personal de la propia Diputación Foral.

15. Incidencias.

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso de selección, en todo lo no previsto en estas bases.

En el desarrollo de las pruebas el Tribunal tendrá la facultad de apartar del procedimiento selectivo a toda persona que lleve a cabo cualquier tipo de actuación fraudulenta que impida el normal desarrollo del ejercicio o que genere competencia desleal de acuerdo con los principios de igualdad, mérito y capacidad, dejando constancia de tales actuaciones en la correspondiente acta de la sesión.

Asimismo, no se permitirá durante el desarrollo del ejercicio del que consta el proceso selectivo, la tenencia o utilización de dispositivos o medios tecnológicos susceptibles de ser utilizados para infringir los principios anteriormente mencionados.

El incumplimiento de tales preceptos por cualquier persona aspirante será objeto de expulsión inmediata, tanto del ejercicio como del proceso selectivo, y no integrará en ningún caso la bolsa de trabajo resultante del mismo.

16. Impugnaciones.

Esta convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquéllas y de la actuación del Tribunal podrán ser impugnados en los plazos y forma previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

TEMARIO

Normativa específica:

- Tema 1. Decreto Legislativo 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias.
- Tema 2. Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI). Texto consolidado de 23 de enero de 2015.
- Tema 3. Tácticas Operativas del Sistema Vasco de Atención de Emergencias.
<https://www.euskadi.eus/tacticas-operativas-sistema-vasco-emergencias/web01-a2larri/es/>
- Tema 4. Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia. Decreto 21/2019, de 12 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.
- Tema 5. Real Decreto 513/2017, de 22 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de instalaciones de protección contra incendios.
- Tema 6. Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación. Documento Básico Seguridad en caso de incendio (DB-SI). Documento completo sin sus anejos (SI1-SI2-SI3-SI4-SI5-SI6).
- Tema 7. Real Decreto 2267/2004, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de seguridad contra incendios en los establecimientos industriales.

Gai tekniko espezifikoak, Guadalajarako suhiltzailearen eskuliburua: <http://www.ceisguadalajara.es/category/documentacion/>

8. gaia. Suteen eskuliburua. 1. zatia: Suaren teoria. 1. eta 2. kap.
9. gaia. Suteen eskuliburua. 2. zatia: Hidraulika. 1. eta 2. kap.
10. gaia. Suteen eskuliburua. 3. zatia: Barruko suteak. Suteen aireztapena. 1., 2., 3. eta 4. kap.
11. gaia. Suteen eskuliburua. 4. zatia: Tuneletako suteak. 1., 2. eta 3. kap.
12. gaia. Suteen eskuliburua. 5. zatia: Sute industrialak. 1., 2., 3. eta 4. kap.
13. gaia. Suteen eskuliburua. 6. zatia: Landare suteak. 1., 2., 3. eta 4. kap.
14. gaia. Arrisku teknologikoen eta laguntza teknikoaren eskuliburua. 1. zatia: Eraikinak. 2., 3. eta 4. kap.
15. gaia. Arrisku teknologikoen eta laguntza teknikoaren eskuliburua. 2. zatia: Egitura kolapsatuak. 1., 2., 3. eta 4. kap.
16. gaia. Arrisku teknologikoen eta laguntza teknikoaren eskuliburua. 7. zatia: NEBK. 1. eta 2. kap.

Zerbitzuaren prozedurak:

17. gaia. Alderdi Operatiboaren Kudeaketa eta Agintaritza sistema (AOKA) - A atala: operatiboa antolatzeko esparrua eta oinarriko jarraibideak.
18. gaia. (AOKA) - A atala: I. eranskina: Bitartekoen bulego automatikoko koadroak, mailen eta ezbehar moten arabera. II. eranskina: zerbitzuko parkeen estalduren mapa.
19. gaia. Alderdi Operatiboaren Kudeaketa eta Agintaritza sistema (AOKA). B atala: Kudeaketa operatiboa eta agintea (GOM). 0 - 1 - 2 - 3 - 4.3 - 4.4 - 4.5 eta 5 atalak.

Beste argitalpen tekniko batzuk. Agintarientzako prestakuntza baliabideak. Ediciones GPS.

20. gaia. Kudeaketa operatiboko tresnak esku-hartzeetan.

I. ERANSKINA

Eskakizun eta bazterketa medikoen taula. Bazterketa orokorra.

Edozein prozesu patologiko edo ezaugarri somatiko, baldin eta Lan Arriskuen Prebentziorako Ataleko Lan Osasun Arloaren iritziz zailtzen edo eragozten badu ofizial eginkizunak betetzea edo, egungo zientziaren edo teknikaren ezagutzen arabera, etorkizunean eginkizun horiek zaildu edo eragotziko baditu.

Oinarri hauekin bat baztertzeko arrazoia den arazo edo afektazio patologiko oro, partaideak berak ezagutu arren Lan Arriskuen Prebentziorako Ataleko Lan Osasun Arloak egindako sarre-rako mediku-azterketan adierazi ez denean.

Baldintza orokorrean xedatutakoa alde batera utzita, honako hauek ere ofizialaren eginkizunak betetzeko bazterketa-arrazoiz bereziak izango dira:

1. Gaixotasun sistemikoak:
 - Kolageno-eritasuna eta konektibopatiak.
 - Fibromalgia.
 - Artritis erreumatoidea.
 - Espondilitis anquilopoietikoak.
 - Neoplasiak.

2. Oftalmologia: Gaitasuneko proba medikoa egiten den egunean, begi biak erabileran begien zorrozatasuna 10/10ekoa izan behar da. Aldez aurretiko errefrakzio-kirurgia eta neurri zuzentzaileak erabiltzea baimenduta daude.

Temas técnicos específicos, Manual del Bombero de Guadalajara: <http://www.ceisguadalajara.es/category/documentacion/>

- Tema 8. Manual de Incendios. Parte 1: Teoría del fuego. Cap. 1 y 2.
- Tema 9. Manual de Incendios. Parte 2: Hidráulica. Cap. 1 y 2.
- Tema 10. Manual de Incendios. Parte 3: Incendios de interior. Ventilación de Incendios. Cap. 1, 2, 3 y 4.
- Tema 11. Manual de Incendios. Parte 4: Incendios en túneles. Cap. 1, 2 y 3.
- Tema 12. Manual de Incendios. Parte 5: Incendios industriales. Cap. 1, 2, 3 y 4.
- Tema 13. Manual de Incendios. Parte 6: Incendios de vegetación. Cap. 1, 2, 3 y 4.
- Tema 14. Manual de riesgos tecnológicos y asistencias técnicas. Parte 1: Edificaciones. Cap. 2, 3 y 4.
- Tema 15. Manual de riesgos tecnológicos y asistencias técnicas. Parte 2: Estructuras colapsadas. Cap. 1, 2, 3 y 4.
- Tema 16. Manual de riesgos tecnológicos y asistencias técnicas Parte 7: NRBQ. Cap. 1 y 2.

Procedimientos del Servicio:

- Tema 17. Sistema para la gestión y mando del operativo (GYMO) - Parte A: marco y pautas básicas de organización del operativo.
- Tema 18. (GYMO) - Parte A: Anexo I: Cuadros de despacho automático de medios por niveles y tipos de siniestros. Anexo II: mapa de coberturas de parques del servicio.
- Tema 19. Sistema para la gestión y mando del operativo (GYMO). Parte B: gestión operativa y mando (GOM). Apartados 0 - 1 - 2 - 3 - 4.3 - 4.4 - 4.5 y 5.

Otras publicaciones técnicas. Recursos de formación para mandos. Ediciones GPS.

- Tema 20. Herramientas de Gestión operativa en las intervenciones.

ANEXO I

Cuadro de requerimientos y exclusiones médicas. Exclusión general.

Cualquier proceso patológico o característica somática que, a juicio de la Unidad de Salud Laboral de la Sección de Prevención de Riesgos Laborales, dificulte o impida el desarrollo de las funciones de oficial o que, según el estado de los conocimientos de la ciencia o de la técnica existentes, en el futuro vaya a dificultar o impedir su desarrollo.

Cualquier afectación patológica que sea motivo de exclusión de acuerdo a estas bases y que, siendo conocida por la persona participante, no sea comunicada en el reconocimiento médico de ingreso de la Unidad de Salud Laboral de la Sección de Prevención de Riesgos Laborales.

Con independencia de lo establecido en la cláusula general, serán causas específicas de exclusión para el desempeño de las funciones de Oficial/a, padecer:

1. Enfermedades sistémicas:
 - Colagenosis y conectivopatías.
 - Fibromialgia.
 - Artritis reumatoide.
 - Espondilitis Anquilopoyética.
 - Neoplasias.

2. Oftalmología: A la fecha de la prueba médica de aptitud, el uso de ambos ojos debe corresponder a una agudeza visual de 10/10. Se le permite cirugía refractiva previa y el uso de medidas correctoras.

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Ikusmen-eremuaren murrizketak.
 - Hemeralopia.
 - Diplopia.
 - Lagoftalmiak edo betazal-ptosiak.
 - Afakiak, sasiafakiak.
 - Konjuntibitis, keratitis edo iritis kronikoak.
 - Diskromatopsia larriak.
 - Aldaketak begi-ninien errefluetan.
 - Korneako distrofia progresiboa edo baimendutakoaren azpiko begi-zorroztasunaren murrizketa.
 - Dakriozistiti kronikoa.
 - Erretinopatia, erretinitis pigmentarioa.
 - Begietako motorearen aldaketak.
 - Glaukoma.
 - Lilurapenarekiko moldegabezia.
3. Otorrinolaringologia:
- Ez da onartuko audiofonorik.
 - Hipoakusia: orokorrean edo akutuen eskalan > % 25etik gorako galera.

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Erdiko edo barruko belarriaren gaixotasun kronikoak.
 - Tinpanoaren zulaketa bizia.
 - Fonazioaren eta sudur-arnasketaren zailtasun garrantzitsuak eta kronikoak.
 - Bertigoak eta orekaren edozein nahaste.
4. Lokomozio-aparatoa:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Anatomia-galera edo eginkizunak betetzeko goiko zein beheko gorputz-adarren edozein muga.
- Beheko gorputz-adarra laburtzea, zutik artikulazio koxofemoralean asimetria eragiten badu.
- Bizkarrezurraren errotaio edo flexio arrunta eragozten duen edozein patologia.
- Oinaren jardunbide arrunta zaildu edo laneko botak janztea eragozten duen oinaren patologia.
- Lanbideari berezkoak zaizkion norberaren babeserako ekipa eta baliabideen erabilera eragotzi edo oztopatzen duten garezur eta aurpegiaren akatsak.
- Artikulazio nagusien mugikortasuna murrizten duen beste edozein eritasun artikuluar edo osteomuskular.
- Ez da onartuko goiko edo beheko gorputz-adarretako artikulazio nagusien mugikortasun-aldaketarik edo/eta deformaziorik, artikulazioen eginkizunen murrizketa eragiten badu.

5. Arnasketa-aparatoa:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- SABBMa % 80tik behera jaitea (lehen segundoko arnasa botatzeko bolumen maximoa).
- EBBa % 80tik behera jaitea (edukiera bital behartua).
- OCFA, enfisema, bronkitis kronikoa.
- Asma.

Será excluyente padecer alguna de las siguientes afecciones:

- Reducciones del campo visual.
 - Hemeralopia.
 - Diplopía.
 - Lagoftalmias o ptosis palpebrales.
 - Afaquias, pseudoafaquias.
 - Conjuntivitis, queratitis o iritis crónicas.
 - Discromatopsias severas.
 - Alteraciones en los reflejos pupilares.
 - Distrofia corneal progresiva o con disminución de la agudeza visual inferior a la permitida.
 - Dacriocistitis crónica.
 - Retinopatías, retinosis pigmentaria.
 - Alteraciones oculomotoras.
 - Glaucoma.
 - Inadaptación al deslumbramiento.
3. Otorrinolaringología:
- No se admitirá audífono.
 - Hipoacusia > 25 % pérdida global o en escala de agudos.

Será excluyente padecer alguna de las siguientes afecciones:

- Enfermedades crónicas del oído medio o interno.
 - Perforación timpánica presente.
 - Dificultades importantes y crónicas de la fonación y de la respiración nasal.
 - Vértigos y cualquier trastorno del equilibrio.
4. Aparato locomotor:
- Será excluyente padecer:

- Pérdida anatómica o cualquier limitación funcional de las extremidades superiores o inferiores.
 - Acortamiento de miembro inferior que provoque asimetría de las articulaciones coxofemorales en bipedestación.
 - Cualquier patología que impida la normal rotación o flexión de la columna vertebral.
 - Patología del pie que dificulte su normal funcionamiento o impida llevar botas de trabajo.
 - Anomalías craneofaciales que dificulten o impidan el uso de los medios y equipos de protección individual.
 - Cualquier otra enfermedad articular u osteomuscular que limite la movilidad de las grandes articulaciones.
 - No se admitirán alteraciones de la movilidad y/o deformidades de las grandes articulaciones de miembros superiores o inferiores que impliquen una limitación de su funcionalidad.
5. Aparato respiratorio:
- Será excluyente padecer:
- Disminución del VEMS por debajo del 80 % (volumen espiratorio máximo segundo).
 - Disminución de la FVC por debajo del 80 % (Capacidad Vital Forzada).
 - OCFA, enfisema, bronquitis crónica.
 - Asma.

- Atelektasiak.
- Pneumotorax berreritzailea.
- Biriketako tuberkulosi aktiboa.
- Pneumokoniosi guztiak.

6. Digestio-aparatoa:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Entzima-mailako eragin nabarmeneko hepatopatia larriak.
- Hepatopatia kronikoak. Gibleko zirrosia.
- Pankreatopia kronikoak.
- Hesteetako hanturazko gaixotasun kronikoak.
- Zuzendu gabeko sabeleko herniak.
- Aztarna funtzionalak utzi dituzten digestio patologjak eta ebakuntza kirurgikoak, aztarna horien ondorio organikoek pertsona horren zereginetan eragin negatiboa sortzen dutenean.

7. Aparatu kardiobaskularra:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Presio arteriala 160/95 baino altuagoa izatea geldirik.
- Bihotz-gutxiegitasuna.
- Kardiopatia iskemikoa, aurretiko bihotzekoa edo by-pass koronarioko bihotz-ebakuntza.
- Arritmia garrantzitsuak, fluttera eta fibrilazio aurikularra.
- Wolf Parkinson White-ren alde zerebrario eszitazio-sindromeak.
- Aurikula eta bentrikularen 2. edo 3. mailako blokeoa.
- Extrasistole patologikoak.
- Balbulopatiak. Ez da onartzen balbula-protetikak.
- Mikrokardiopatiak.
- Arteria gutxiegitasun periferikoa.
- Zainen gutxiegitasun periferiko larria.
- Arteria eta zainetako shunt malformazioak eta bihotz edo hodi handietako aneurismak.

8. Nerbio-sistema zentrala:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Epilepsiak.
- Mielina galtzea eragiten duten gaixotasunak eta esklerosi anizkoitza.
- Entzefalopatia kronikoak edo aztarna larriak.
- Muinaren afekzio kronikoak edo aztarna larriak.
- Dardara edo espasmo kronikoak. Parkinson gaixotasuna eta sindrome estrapiramidalak.
- Sistema zentralako jatorriko bertigoa. Garun eta zerebelo ataxiak.
- Sortzetik edo hartutako garezurreko lesioen ondoriozko aztarna garrantzitsu-mota guztiak.
- Hiposmia kronikoaren edozein maila.
- Muskulu-distrofiak.
- Miopatiak.
- Garezurreko nerbioen perlesiak, aurpegi-perlesiari buruzko aipamen esplizitua, norberaren babeserako ekipoak erabiltzeko arazoak ekarriko lituzke eta.

- Atelectasias.
- Neumotórax recidivante.
- Tuberculosis pulmonar activa.
- Todas las neumoconiosis.

6. Aparato digestivo:

Será excluyente padecer:

- Hepatopatías agudas con repercusión enzimática importante.
- Hepatopatías crónicas. Cirrosis hepática.
- Pancreatopatías crónicas.
- Enfermedades inflamatorias crónicas intestinales.
- Hernias abdominales no corregidas.
- Patología digestiva o intervenciones quirúrgicas con secuelas funcionales, cuyas repercusiones orgánicas incidan negativamente en el desempeño de su trabajo.

7. Aparato cardiovascular:

Será excluyente padecer:

- Tensión arterial superior 160/95 en reposo.
- Insuficiencia cardíaca.
- Cardiopatía isquémica, infarto previo o intervención cardíaca con by-pass coronario.
- Arritmias importantes, flutter y fibrilación auricular.
- Síndromes de preexcitación Wolf Parkinson White.
- Bloqueo aurículo-ventricular de 2.º o 3.º grado.
- Extrasístoles patológicas.
- Valvulopatías. No se admiten prótesis valvulares.
- Miocardiopatías.
- Insuficiencia arterial periférica.
- Insuficiencia venosa periférica importante.
- Malformaciones arteriovenosas, shunts arteriovenosos y aneurismas cardíacos o de grandes vasos.

8. Sistema nervioso central:

Será excluyente padecer:

- Epilepsias.
- Enfermedades desmielinizantes, esclerosis múltiple.
- Encefalopatías crónicas o secuelas de agudas.
- Afecciones medulares crónicas o secuelas de agudas.
- Temblores o espasmos crónicos. Enfermedad de Parkinson y síndromes extrapiramidales.
- Vértigo de origen central. Ataxias cerebrales y cerebelosas.
- Todo tipo de secuelas importantes derivadas de lesiones craneales congénitas o adquiridas.
- Cualquier grado de hiposmia crónica.
- Distrofias musculares.
- Miopatías.
- Parálisis de nervios craneales - mención explícita a la parálisis del facial que implicaría problemas para el uso de los equipos de protección individual.

9. Buruko egoera: Patología psikiatrikoa:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Psikosi eskizofrenikoak.
- Depresio nahasmenduak. Nahasmendu Bipolarra.
- Nahaste obsesibo-konpulsibo larriak. Fobiak.
- Adimen-atzerapena.
- Toxikomaniak, baita alkoholismoa ere.
- Gai psikotropikoen kontsumoa antzemateko azterketetan nolana positibo ematea baztertzeko arrazoia da.
- Nortasunaren nahasmendu guztiak, lanbidearen berezko arriskuekin bateraezinak diren jokabide-jarraibide desegokiak dakartzatenean.

10. Gernu-aparatua:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Gernu eta giltzurruneko hodien sortzetiko malformazioak, giltzurrunetako tenia-kistea, meduloespongiosia eta giltzurrun bikoitza izan ezik.
- Nefrektomia.
- Edozein mailatako giltzurruneko gutxiegitasuna eta nefroesklerosia.
- Giltzurruneko tubulopatiak. Hidronefrosia.
- Giltzurruneko gutxiegitasuna sortzen duten nefropatiak.

11. Larruazala:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Larruazaleko gaixotasun infekzioso kronikoak.
- Eginkizunak betetzeko muga eragin dezaketen gaitz dermatologikoak.
- Eginkizunak betetzeko muga larria eragiten duten orbainak.

12. Sistema hematopoietikoa:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Hemopatia kroniko larriak.
- Anemia hemolitiko eta sideroblastiko kronikoak.
- Talasemiak, anemia larria eragiten badute.
- Leukosia eta sistema erretikulohistiozitarioaren gaixotasunak.
- Linfoproliferazio-sindrome kronikoak.
- Hemostasiaren aldaketak. Hemofiliak.
- Gammapatia monoklonalak.
- Gaueko hemoglobinuria paroxistikoa.
- Immunoeskaziak.
- Bareko gaitzak.
- Antikoagulatzaile, interferon edo kortikoideen bidezko tratamendu kronikoak.

13. Gaixotasun endokrinoak:

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Diabetes mellitusa.
- Diabetes zaporegabea.
- Cushing-en gaixotasuna.
- Addison-en gaixotasuna.

9. Estado mental: Patología psiquiátrica:

Será excluyente padecer:

- Psicosis esquizofrénicas.
- Trastornos depresivos. Trastorno Bipolar.
- Trastornos obsesivos compulsivos graves. Fobias.
- Retraso mental.
- Toxicomanías, incluida el alcoholismo.
- Cualquier resultado positivo en las pruebas de detección de consumo de sustancias psicotrópicas, es causa de exclusión.
- Todos los trastornos de la personalidad cuando supongan pautas de conducta inadaptadas e incompatibles con los riesgos propios de la profesión.

10. Aparato urinario:

Será excluyente padecer:

- Malformaciones congénitas de vías urinarias y renales excepto quiste renal solitario, meduloespongiosis y riñón doble.
- Nefrectomía.
- Insuficiencia renal y nefroesclerosis de cualquier grado.
- Tubulopatías renales. Hidronefrosis.
- Nefropatías que originen insuficiencia renal.

11. Piel:

Será excluyente padecer:

- Enfermedad infecciosa crónica de la piel.
- Enfermedades dermatológicas que puedan producir limitación funcional.
- Cicatrices que produzcan limitación funcional importante.

12. Sistema hematopoyético:

Será excluyente padecer:

- Hemopatías crónicas graves.
- Anemias hemolíticas y sideroblásticas crónicas.
- Talasemias, si producen anemia importante.
- Leucosis y enfermedades del sistema reticulohistiocitario.
- Síndromes linfoproliferativos crónicos.
- Alteraciones de la hemostasia. Hemofilias.
- Gammapatías monoclonales.
- Hemoglobinuria paroxística nocturna.
- Inmunodeficiencias.
- Enfermedades del bazo.
- Tratamientos crónicos con anticoagulantes, interferón o corticoides.


13. Enfermedades endocrinas:

Será excluyente padecer:

- Diabetes mellitus.
- Diabetes insípida.
- Enfermedad de Cushing.
- Enfermedad de Addison.

- Tiroide, giltzurrungaineko, hipofisi eta paratiroidearen disfunczioak eta gaixotasunak.
- Gonadaren disfunczioak eta gaixotasunak.
- Porfiriak.
- Eginkizunak zuzen betetzea eragotzi edo oztopatzen duen obesitatea.

- Disfunciones y enfermedades tiroideas, suprarrenales, hipofisarias y paratiroides.
- Disfunciones y enfermedades gonadales.
- Porfirias.
- Obesidad que dificulte o impida el correcto desempeño de las funciones.

 Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	DEIALDIA / CONVOCATORIA: B2022/C01 Lan poltsa / Bolsa de trabajo OFIZIALEN LAN-POLTSA / BOLSA DE TRABAJO DE PERSONAL OFICIAL
---	---

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE			
NAN edo bestelakoak / DNI u otros	Abizenak eta izena / Apellidos y nombre		Emakumea / Mujer <input type="checkbox"/> Gizona / Hombre <input type="checkbox"/>
Jaioteguna / Fecha de Nacimiento	Nazionalitatea / Nacionalidad		
Posta helbidea / Dirección postal		Zenbakia / Solairua-Atea Nº / Piso-Puerta	Udalerrria / Municipio
Posta kodea / C. Postal	Probintzia / Provincia	Posta elektronikoa / Correo electrónico	Telefonoa/k / Teléfono/s

PROZESUAN PARTE HARTZEKO DATUAK / DATOS PARA TOMAR PARTE EN EL PROCESO
Deialdian betebeharrak gisa eskatutako eta izangaiak alegatutako titulu akademiko ofiziala (unibertsitate gradua edo doktoretza, lizentziatura, ingeniariaritzaren edo arkitektura) / Titulación académica oficial alegada por el/la aspirante y exigida como requisito en la convocatoria (grado universitario o doctorado, licenciatura, ingeniería o arquitectura)
Euskarako 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea egiaztatuta al duzu? / ¿Tiene acreditado el perfil lingüístico 3 de euskera o equivalente? Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
B gidabaimenik al duzu, indarrean? / ¿Está en posesión del carnet de conducir tipo B, en vigor? Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
Hautaketa probak egiteko erabili nahi den hizkuntza: / Idioma en el que desea realizar las pruebas selectivas: Euskara <input type="checkbox"/> Castellano <input type="checkbox"/>

LAN-ESPERIENTZIA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN				
Nahikoa lekuri ez baduzu, informazio gehiago jaso dezakezu erantsitako beste dokumentu batean				
EXPERIENCIA LABORAL EN ADMINISTRACIONES PÚBLICAS				
Si no tiene espacio suficiente puede ampliar la información en otro documento adjunto				
ALDIA PERIODO	LANPOSTUA PUESTO	LAN LOTURA VÍNCULO LABORAL	SAILK. TALDEA GRUPO CLASIF.	ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

ERANTSITAKO AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN ADJUNTA	GFako nire espediente pertsonalean dago / Constan en mi expediente personal de la DFG	Eskaerari eranstean zaio/ Se adjunta a la solicitud
Indarrean dagoen NANen kopia / Copia del DNI en vigor	<input type="checkbox"/>	Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
Deialdian eskatutako titulu ofizialaren kopia edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria (egiaztatze berariazko baimenik izan ezean) / Copia del título oficial exigido en la convocatoria o del certificado de haber abonado los derechos para su expedición (salvo autorización expresa para su comprobación)	<input type="checkbox"/>	Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
Euskarako 3.hizkuntza eskakizunaren edo baiokidearen kopia (egiaztatze berariazko baimenik izan ezean) / Copia del título o certificado del perfil lingüístico 3 de euskera o equivalente (salvo autorización expresa para su comprobación)	<input type="checkbox"/>	Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
Indarrean dagoen B gidabaimenaren kopia / Copia del carné de conducir tipo B en vigor	<input type="checkbox"/>	Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
Aurretiko zerbitzuen ziurtagiriaren kopia/k, 10.3 oinarrian esperientzia balioesteko jasotakoaren arabera. / Copia certificado/s servicios previos acreditativo/s de la experiencia valorable conforme a la base 10.3.	<input type="checkbox"/>	Ez /No <input type="checkbox"/> Bai /Sí <input type="checkbox"/>
BAIMENAK/ PERMISOS		
Baimena ematen al diozu Funtzio Publikoko Zerbitzuari, beharrezko datu-base ofizialen bitartez egiazta ditzan parte hartzeko eskaeran adierazitako titulu ofizialak? / ¿Autoriza al Servicio de Función Pública para comprobar, a través de las bases de datos oficiales necesarias, los títulos oficiales indicados en su solicitud de participación?		Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>
Baimena ematen al duzu zure datu pertsonalak beste herri administrazio batzuei lagatzeko, aldi baterako kontratazioak egiteko erabil ditzaten, betiere hautaketa prozesu honetatik sortzen den lan poltsan izanez gero? / ¿Consiente la cesión de sus datos personales a otras Administraciones Públicas a efectos de contrataciones temporales, en caso de formar parte de la bolsa generada por este proceso selectivo?		Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>
Baimena ematen al duzu lanpostua betetzeko beharrezkoa den gaitasun funtzionala egiaztatze beharrezkoak diren proba guztiak egiteko, deialdiaren bigarren oinarriaren arabera? / ¿Autoriza la realización de todas las pruebas que sean necesarias para acreditar la capacidad funcional necesaria para el desempeño del puesto, de acuerdo con la base segunda de la convocatoria?		Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/>

DECLARATZEN DUT neure erantzukizunpean ezen orri honetan idatzi ditudan datuak egiazkoak direla eta orriari dagokion prozesuan onartua izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala, eta konprometitzen naizela horiek modu sinesgarrian egiaztatzen, hala eskatzen didatenean.

Jakinazten dizugu ezen zure datu pertsonalak «Hautaketa eta Hornidura» izeneko tratamendu jardueran txertatuko direla, zeinaren arduraduna baita Araubide Juridikoko eta Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza. Datu pertsonalak tratatuko dira hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko xedez, eta gordeko dira tratamenduaren helbururako eta erantzukizunak zehazteko egokitzat jotzen den denboran. Era berean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira, helbide honetan eskuragarri dauden formularioen bidez: <https://egoitza.gipuzkoa.eus> Gainera, datuak babesteko ordezkarirengana jo dezakezu (dbo@gipuzkoa.eus) edo kontrol-agintaritza eskudunarengana (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, <http://avpd.euskadi.eus>).

DECLARO bajo mi responsabilidad que los datos consignados en esta instancia son ciertos y que reúno las condiciones exigidas para ser admitido/a en el proceso a que se refiere la misma, comprometiéndome a acreditarlas fehacientemente en el momento en que me sean requeridas

Se informa que sus datos personales serán incorporados a la actividad de tratamiento denominado "Selección y Provisión" cuyo responsable es la Dirección General de Régimen Jurídico y Gestión de Personas. Los datos personales serán tratados con la finalidad de gestionar las solicitudes para participar en el proceso selectivo y serán conservados por el tiempo pertinente para los fines del tratamiento, así como el necesario para determinar responsabilidades. Asimismo podrá ejercitar, ante el responsable del tratamiento, los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición mediante los formularios disponibles en esta dirección: <https://egoitza.gipuzkoa.eus> Además, puede dirigirse al delegado de protección de datos (dbo@gipuzkoa.eus) o a la autoridad de control competente (Agencia Vasca de Protección de Datos, <http://avpd.euskadi.eus>).

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ a.

Sinadura / Firma

**GOBERNANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
DIPUTADA FORAL DEL DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA**